

**Martxoan erositako 10 dendan beste irekiera bat**

## **AUTONOMIA 53: EROSKI-REN ERREFERENTZIA BERRIA BILBORAKO**

- EROSKI k 2020an ireki duen dendarik handiena ireki du, 1.570 metro koadrorekin; bertan, garrantzi berezia izango dute produktu freskoek eta tokikoek
- EROSKI k 8 milioi euro inbertitu ditu martxoan erositako hamar dendak berritzen eta eraldatzen
- Hil honetan eta 2021eko lehen hiruhilekoan inauguratuko dituzte Bizkaian erositako gainerako bost dendak

**Bilbo, 2020ko abenduaren 3a.-** [EROSKI](#) k supermerkatu bat ireki du gaur, Autonomia kaleko 53.ean (Bilbon). Martxoan erositako hamar dendetatik irekitzen duen seigarrena da. Orain arte, azken asteetan, hiru denda inauguratu dituzte Bilbon —Henao kalean eta Errekalde eta Deustuko auzoetan—, bat Itzubaltzetan (Getxon) eta beste bat Erandion. Beste bi supermerkatu aurten irekiko dira, eta gainerako biak 2021eko lehen hiruhilekoan.

Hala, EROSKI bere presentzia handitzen ari da Bilboko auzo guztietan, eta bere eskaintza osatuko du dendak ipinita Getxon, Astrabuduan, Santurtzin, Basaurin eta Galdakaon. Era horretan, 90 supermerkatu izango ditu guztira Bilbo Handian.

*"Bizkaiaren eta Euskadiren alde apustu egiten jarraitzen dugu. Bilboren kasuan, hiriko auzo guztietan egongo gara hemendik aurrera. Gure asmoa da hedatzen jarraitzea eta aurten 75 denda berri irekitzea, nola propioak hala frankizia erakoak",* azaldu du Sare Komertzialeko zuzendari nagusiak, Rosa Carabelek.

Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 1.570 metro koadroko salmenta aretoa du. 48 langile arituko dira, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Supermerkatu berriaren ezaugarrien artean, nabarmentzekoa da bezeroaren arreta pertsonalaren alde egindako apustua, harategia, urdaitegia eta arrandegia jarri baititu. Hilero-hilero eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarririk behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta EAEn 840.000 bazkide inguru ditu; gainera, oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

### **Tokian tokiko produktuek garrantzi handia**

*"Produktu freskoen eta tokian tokikoen alde egiten jarraitzen dugu. Ez da bakarrik gure izaeraren ikurra, baizik eta baita herritarren eskakizun gero eta zabalago bat Covid-19aren garaiotan",* san du EROSKI iparraldean dituen supermerkatuetako zuzendariak, Ismene Fulgencio. Lehen seihilekoan %14,5 igo da EROSKI Euskal Autonomia Erkidegoan saltzen dituen tokiko produktuen kopurua. Eskualdeko 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta horiek erosteko 650 milioi eurotik gora erabiltzen ditu urtero.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifiko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegia-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

### **Eraginkorragoa eta iraunkorragoa**

Era berean, saltokia iraunkorragoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen iraunkortasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotz industrialean aplikatzen duen berrikuntza teknologikoari esker, eraikinak gutxiago kontsumitzen du. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homoginoa da eta ikusmenarentzat oso eroso, eta ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu.

### **Janari banatzaileetan lehena EAEn**

EROSKI da liderra EAeko elikagaien banaketan. 411 saltoki ditu guztira autonomia erkidegoan, hala nola supermerkatuak, hipermerkatua, cash & carryak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, eta *on line* supermerkatua, zeina bakarra baita erosketak EAE osoko edozein etxetara eramaten dituen.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)